Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Maria Angeles Arrizabalaga Lauzirika

Ermua, Bizkaia
(1926-2019)



Aurkibidea

Biografia



Erdiko kalean jaio zen, "Joxebenta" etxean. Umetan Muruetan pasa zuen denbora asko izebaren etxean. Eskolan gutxi ibili zen eta ezkondu arte lanean jardun zuen, ume-zain edo lantegian. Elkarrizketan Margarita ahizpa ere azaltzen da.

Zintak

ERM-219

- **Proiektua**: Ermuko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Data**: 2018-06-01
- **Iraupena**: 16 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar
- **Emalea**: Gonzalez, Esti

ERM-220

- **Proiektua**: Ermuko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Data**: 2018-06-01
- **Iraupena**: 50 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar
- **Emalea**: Gonzalez, Esti

Pasarteak

1. Ermuko "Joxe Benta" etxea

- **Erref**: ERM-219/002
- **Iraupena**: 0:00:37. **Hasi**: 00:00:38. **Bukatu**: 00:01:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Ermuko Erdikaleko "Joxe Benta" etxean jaio zen. Etxearen izenaren jatorria Sallabenteko bentatik dator.

2. Lanik ez eta beste herrietara lanera

- **Erref**: ERM-219/004
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:01:34. **Bukatu**: 00:02:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Amak ikatza saltzen zuen. Senide asko ziren eta lanera beste herri batzuetara joan ziren. Maria Angeles Muruetara bidali zuten eta horregatik eskolara gutxi joan zen.

3. Amak ikatza saltzen zuen

- **Erref**: ERM-219/005
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:02:58. **Bukatu**: 00:03:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:
Aitak lantegian lan egiten zuen baina ikatza banatzen laguntzen zuen ere. Harri-ikatza.

4. "Joxe Benta" etxearen historia eta Sallabenteko benta

- **Erref**: ERM-219/006
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:03:41. **Bukatu**: 00:05:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Etxe azpian Ermuko lehenengo kooperatiba-denda zabaldu zen, geroago Eroski izango zena. Jatorriz "Joxe Benta" baserria izan zen baina berak etxe bat bezala ezagutu zuen. Izena, Sallabenteko bentatik datorkio eta bertan kontrabandoa egiten omen zen. Bildotsak eta ardiak eramaten ziren Frantziara

5. Ermuko Eloy Izagirreren lantegia

- **Erref**: ERM-219/008
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:05:55. **Bukatu**: 00:06:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak

Laburpena:
Eloy Izagirreren lantegian lan egin zuen gaztetan. Berogailuak eta arropak lixatzeko aparatuak egiten ziren bertan.

6. Aita kaxagina izan zen

- **Erref**: ERM-219/009
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:06:49. **Bukatu**: 00:08:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:
Aita kaxagina zen eta Eibarrera bidaltzen zituen egindako piezak.

7. Ermuko lantegiak eta dendak

- **Erref**: ERM-219/011
- **Iraupena**: 0:00:37. **Hasi**: 00:08:22. **Bukatu**: 00:08:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Garai batean Ermuan zeuden lantegiak: Eloy Izagirre, Acha, "kutxillerixia"... Dendak ere: "Denda barrixa", kooperatiba, Mendiolanekua...

8. Garai bateko Ermuko eskolak

- **Erref**: ERM-219/012
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:08:59. **Bukatu**: 00:11:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Garai bateko Ermua polita zen. Denek ezagutzen zuten elkar. Eskolara plazara joan zen eta maistra onak izan zituen baina bera ikasle txarra zen. Bi eskola zeuden, baita neskentzat eta bestea mutilentzat.

9. Neskek "eskuetakoak" ikasten zituzten

- **Erref**: ERM-219/013
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:11:00. **Bukatu**: 00:12:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Eskola eta gero, arratsaldetan, "eskuetakuak" egiten zituzten: poltsoak, alfonbrak, gonak... Josten eta brodatzen ere ikasi zuen.

10. Umetako jolasak eta gaiztakeriak

- **Erref**: ERM-219/015
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:12:37. **Bukatu**: 00:13:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetako gaiztakeriak eta jokuak kontatzen ditu. Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren

11. Ermuko paseatzeko lekuak

- **Erref**: ERM-220/015
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:17:59. **Bukatu**: 00:18:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura

Laburpena:
Garai bateko Ermuako pasealekuak aipatzen dituzte. Neskak eta mutilak ezagutzeko lekuak ziren.

12. "Potian-pote" jolasa

- **Erref**: ERM-220/017
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:19:30. **Bukatu**: 00:22:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Pasealekuetan jolasten ibiltzen ziren umetan. "Potian-pote" jokora nola jolasten zuten azaltzen dute. Probalekuan ere jolasten zuten.

13. Oinak errekan garbitu eta etxera

- **Erref**: ERM-220/018
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:22:01. **Bukatu**: 00:23:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Hiru erreka pasatzen ziren Ermutik. Gizon batzuk egoten ziren erreka ondoan neskatilei agur esaten. Larunbatetan etxera joan aurretik errekara jaitsi eta oinak garbitzen zituzten.

14. Sallabenteko "Joxe Benta"ren ondorengoak

- **Erref**: ERM-220/020
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:23:58. **Bukatu**: 00:25:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Amak errieta egiten zien, baina oso umezalea zen. Carmen zuen izena eta aitak Zipriano, nahiz eta denek "Joxe Benta" deitzen zioten. Aitonak izan zuen benta hura Sallabenten. Auzoko jaietan orkestrak jotzen zuen eta jatekoa ematen zuten.

15. Ermuko jaiak; dantzan ikasten

- **Erref**: ERM-220/021
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:25:40. **Bukatu**: 00:27:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Ermuan San Pelayoak eta Santixauak ospatzen ziren musika-bandarekin, dantzekin... Gaztetxotan ezin ziren dantzetara joan eta urrutitik musika entzunez ikasten zuten haien artean. Moja joan zen ahizpak oso ondo dantzatzen zuen.

16. Arropa berriak estreinatzeko egunak; jostunak

- **Erref**: ERM-220/022
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:27:49. **Bukatu**: 00:29:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Aste Santuan udaberriko arropak estreinatzen ziren, Santixauetan udakoak eta Domu Santu egunean negukoak. Arropak jostunak egiten zituen. Eguneroko eta jaietako arropak ezberdinak ziren. Anai-arreba zaharren arropak txikienek erabiltzen zituzten.

17. Garai bateko oinetakoak: abarketak, txankloak...

- **Erref**: ERM-220/023
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:29:51. **Bukatu**: 00:31:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Abarketak erabiltzen ziren garai batean baina Margaritak zapatilak eta sandaliak erabiltzen zituen. Jaietarako borladun zapatak zituen. "Txankoak" abarketen gainetik janzten ziren. Ortozik ere ibiltzen ziren.

18. Larunbatero konfesatu behar zuten

- **Erref**: ERM-220/025
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:31:46. **Bukatu**: 00:34:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Aste Santuetako gauzarik garrantzitsuena arropak estreinatzea zen. Prozesioak egoten ziren. Larunbat guztietan konfesatu behar izaten zuten. Abadeentzat dena zen bekatua. Hamar mandamentuak gogoratzen dituzte.

19. "Bula" ordaindu eta absoluzioa lortu

- **Erref**: ERM-220/026
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:34:39. **Bukatu**: 00:35:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Pertsona batzuek "bula" izeneko isun moduko bat ordaintzen zuten konfesioko bekatuen absoluzioa lortzeko. Pazkoetan txartela bat zegoen, ordainpekoa.

20. Garai bateko egunerokotasuna; janaria

- **Erref**: ERM-220/027
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:35:53. **Bukatu**: 00:37:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Garai batean diru askorik ez zegoen eta seme-alaba asko zeuden etxe batean.

Bazkaltzeko babarrunak jaten zituzten eta igandetan garbantzuak. Behin mezetara ez zen joan garbantzuak zaintzeko.

21. Gerrako babeslekuak Ermuan

- **Erref**: ERM-220/029
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:38:38. **Bukatu**: 00:39:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Umeak zirela ezagutu zuten gerra. Kanpaiek hegazkinen abisua jotzen zutenean kanpandorrera joateko agindua zuten haurrek, bonbak bertan botako ez zituztelakoan. Geltoki azpiko zubian babesleku bat ere zegoen eta gaur egungo jubilatuen etxe azpian beste bat.

22. Gerrako zaurituak

- **Erref**: ERM-220/030
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:39:56. **Bukatu**: 00:41:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra garaian hegazkinak heltzen zirenean kanpandorrean ezkutatzen ziren. Lehenengo abisua basotik jasotzen zen, txapligu baten bidez. Behin zubiko babeslekuan ezkutatu ziren eta Kalamuatik zaurituak nola ekartzen zituzten ikusi zuten.

23. Artarrai baserritik hegazkinen abisua botatzen zen

- **Erref**: ERM-220/031
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:41:20. **Bukatu**: 00:42:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra garaian Artarrai baserritik botatzen zituzten txapliguak, hegazkinak zetozela abisatzeko. Iluntzetan frontoira jeisten zituzten tankeak eta goizean berriz ere Arratera igotzen zituzten.

24. Anaia eta osaba Bilboko Carmelo espetxean

- **Erref**: ERM-220/033
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:42:44. **Bukatu**: 00:43:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra garaian etxean soldaduak izan zituzten. Haien anai bat eta osaba bat Bilboko Carmelo espetxean egon ziren preso.

25. Karlistak izateagatik zigortuak

- **Erref**: ERM-220/034
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:43:45. **Bukatu**: 00:45:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Aita eta beste osaba bat karlistak ziren eta gerra hasi zenean zigor bezala frontera eraman zituzten trintxerak egitera. Batzuk hil egin zituzten.

26. Ahizpa herrian oso maitatua zen

- **Erref**: ERM-220/037
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:46:42. **Bukatu**: 00:48:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Ahizpa nagusia maistra zen eta edozeini laguntzen zion. Oso maitatua zen. Gerra hasi zenean moja joan zen eta joan-etorriko zerbait izatea eskatzen zion jendeak. Gero, misioetara joan zen eta trena Ermutik pasatu zenean, herri guztia joan zen geltokira agur esatera. Misioetatik gaixorik bueltatu zen eta gaztea zelarik hil zen, 55 urterekin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-15

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com